

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2013ko martxoaren 13a. IX. urtea. 2.559. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Hamaika kiroletan aritzen da Alex Txikon bizkaitarra, baina alpinismoagatik da batez ere ezaguna. HITZA

Alex Txikon Mendizalea

«Entrenatzerakoan ere beti saiatzen naiz naturaz gozatzen»

Gazte-gaztetatik harrapatu zuen mendiak bizkaitarra, eta gaur, 'Bajo Cero' filma aurkeztuko du Mendi Tour jaialdiaren barruan; Tolosako Leidor aretoan izango da 19:30etik aurrera **03**

'Euskal Pizkundera' izena jarriko diote Tolosako Errotaren ondoko plazari

'Aitzol eta Euskal Pizkundera' egitasmoaren barruan antolatu dituzte ekitaldiak; bihar ikastetxeen txanda izango da, Leidorren **02**



Irazabalbeitia, Ezenarro eta Arandia, 'Euskal Pizkundera' izena jarriko dioten gunearen inguruan. I. URKIZU

Tolosa Ueman sartuko da larunbatean egingo duten batzar nagusian

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak Orion egingo du batzar nagusia; Tolosaz gain, Zarautz, Lesaka, Lekeitio eta Munitibar sartuko dira **04**

Ibarrako Udalak auzo konposta egiteko bi gune jarriko ditu

Zero zabor politiken aldeko apustua berretsiz, udalak bi gune jarriko ditu; udaletxera deituta eman behar da izena **07**

Peio Olano lizartzarrak espetxea utzi du eta etxean da

Atzo arratsaldean geratu zen aske bermea ordaindu eta gero; goizaldean herrian harrera egin diote **06**

Gaurtik igandera Misio Astea izango da, Ibarran **06**

Euskal Pizkundeari eskainitako zikloa borobilduko du Tolosako Udalak

Bihar hasiko dira ekitaldiak, Leidorren, ikastetxeetako haur eta gaztetxoentzako emanaldiarekin

ITZEA URKIZU Tolosa

2011n Euskal Herriko hainbat herritar abian jarri zuten, *Aitzol* eta *Euskal Pizkundera* egitasmoa; honi jarraipena eman, eta egitaraua borobilduko du Tolosako Udalak, Euskal Pizkundeari eskainitako plaza berria izendatuz. Inaki Irazabalbeitia, Igor Ezenarro eta Elene Arandia abeslaria izan dira agerraldian.

Mugimendu hura sortu zuten gizon-emakumeen lana gogora ekarri, eta kultur arloko jarduerak antolatzeari ekin zioten udalek, duela bi urte. Izan ere, Jose Ariztimuño Olaso *Aitzolen* fusilaztearen 75. urteurrena bete zela eta, belaunaldi osoa omentzeko bidea izan zen, Euskal Pizkundeari urte hura.

Inaki Irazabalbeitia zinegotziak agerraldian azaldu duenez, «egitasmo honek, berez, 2012an izan behar zuen amaiera. Hauteskuendean ondorioz, Euskal Pizkundera proiektuaren barruko udaletan aldaketak izan ziren, ordea, eta azkenean, Tolosako Uda-

lak soilik erabaki du ospakizunei jarraipena ematea». Proiektu honi amaiera eman, eta helburuak borobiltzeko, beraz, hainbat jarduerak antolatu dituzte, datozen egunotarako.

Aurretik buruturiko jardueren artean, Irazabalbeitiak, *Aitzol* jaio zeneko etxean jarritako plaka, poesia irakurraldiak eta Euskal Pizkundera manifestuaren irakurketa nabarmendu ditu: «Kulturaren sekulako iraultza sortu zuten emakume eta gizon haiek, euskalgintzan mugimendua handia izan baitzen».

Transmisioa eta memoria

Bihar bertan izango da, Euskal Pizkunderaren harira antolaturiko lehen jarduerak, ikastetxeetako haur eta gaztetxoekin. Leidor aretoan, 09:00etan eta 12:00etan, *Baga Biga Higa: Euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena* proiektuaren saioa eskainiko dute Mikel Markez eta Eñaut Eloorrieta musikariek.

1960ko hamarkada aurreko garaia abiapuntu hartu, eta gaur egunera bitarteko euskal musikaren historia kontatuko diete, formato multimedia eta hitzaldi parte hartzaileen bitartez.

Ostiralean, berriz, Anjel Lertxundi eta Anton Valverde Topic zentroko aretoan izango dira, 20:30etik aurrera; *Hiru eleak: Li-*



Inaki Irazabalbeitia, Igor Ezenarro eta Elene Arandia, udaletxeko pleno aretoan. ITZEA URKIZU

zardi, Lauaxeta, Lete emanaldia eskainiko dute, hiru poeten hitzak musikatuz. Sarrerak, www.topictolosa.com helbidean eskura daitezke.

Aitzol eta Euskal Pizkundera egitasmoko ekitaldi nagusia, eta zikloa itxiko duena, datorren martxoaren 23koa izango da. 11:30ean, udaletxeko pleno aretoan Aranzadi Zientzia Elkartearen DVDa aurkeztuko dute.

Jarraian, Aranburu Jauregiaren, Errotaren eta ibaiaren artean dagoen eremuari, Euskal Pizkundera plaza izena jarriko diote, eta inaugurazio ofiziala, musika eta literaturak osatuko dute. Izan ere, Juantxo Zeberio pianoan ariko da, Elene Arandia kantuan, eta Lask abesbatzak ere zenbait doinu kantatuko ditu.

Hauetaz guztiez, Karlos Linazasoren, Joxemari Iturraldearen eta

Igor Estankonaren poema errezitaldiak ere batuko zaizkie. Herritarren artean kantu liburrak ere banatuko ditu udalak, jendeak ere kantuak abestu ditzan.

Horrez gain, aipatzekoa da, Euskal Pizkundera plazan bi panel

jarriko dituztela. Hauetariko batean, Anjel Lertxundi Euskal Pizkundera idatzitako manifestuaren zati bat izango da.

Beste taulan, berriz, kultur sortzaile eta eragile haien guztien izen-abizenak idatziko dituzte.

• tolosa@hitza.info

Euskal Pizkundera Anjel Lertxundiren begietan

➔ «Euskarari prestigioa eman. Euskararen irakaskuntzaren oinarriak jarri. Ahozko literatura duindu. Literatura idatzia bide berrien arrastoan abiarazi eta noranahikoa egin. Antzerkia dinamizatu. Prentsa sortu eta suspertu. Dantza berritu, dantza modernoarekin joan-etorrian. Garaiko korronteen arabera musika bultzatu, eta musika tradizionala ikertu, baliatu, ezagutarazi. Arte plastikoak abangoardiarekin lotu, diziplina artistikoak elkarrekin harremanetan jarri... Euskarak ordu arte inoiz ezagutu zuen mugimendu kultural bizi eraginkorra protagonizatu zuten Pizkundera gizon-emakume haiek».

Ikasle ohiei zuzendutako ekitaldia izango da, gaur

Tolosaldea goimailako LH Institutuaren historia, oraina eta geroa ekitaldia izango da, institutuan bertan

E. Maiz Tolosa

Tolosaldea goimailako LH Institutuak ate irekien jardunaldien moduko ekitaldia egingo du, gaur. Tolosaldeko Ikasle Ohien

elkartean antolatu du *Ikastetxearen historia, oraina eta geroa* ekimenari 18:30ean emango diote hasiera. Batez ere, bertan ikasle izan zirenei zuzendua izango da, baina edonork parte har dezake. Helburua, ikasle ohien harremanak sendotzea izango dute.

Era berean, ikastetxearen gaur egungo egoeraren berri ezagutzeko aukera izango dute ikasle ohiek, baina ikastetxearen historiari gain, oraina eta geroa ere uztartuko dituzte.

TOIKOK antolatu duen ekimen honen bidez, informazioa jaso nahi dute. Ekimenak eta erronkak ezagutu, zerbiztuak aztertu, eta Tolosaldea Goimailako LH Institutuak eskaintzen dituen instalazioak eta baliabideak ezagutzeko aukera eskainiko dute.

Gaurko jardunaldian, hasteko,



Ikastetxearen instalazioak eta baliabideak erakutsiko dituzte. HITZA

ikastetxeko zuzendaritzaren aurkezpena egingo dute. Jarraian, ikastetxearen informazioa eta ekimenak jorratuko dituzte, eta 19:00etan, instalazioak eta ekipa-

menduak ezagutzeko bisita gidatua egingo dute.

Bukatzeko, bertaratutako guztientzako lunch-a izango da.

• tolosa@hitza.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Alex Txikon ◉ Mendizalea

Gazte-gaztetan harrapatu zuen mendiak, eta pozak nahiz tristurak eman dizkio alpinismoak. 'Bajo Cero' filma aurkeztuko du, gaur, Mendi Tour-en.

«Duela bi urtera arte, hiltzeari beldurra izan diot»

Itzea Urkizu Tolosa

Aizkoran, kayakean, eskalatzen nahiz beste hamaika kiroletan aritzen da Alex Txikon (Lemoa, 1981), baina alpinismoari eskaini dizkion hainbat unegatik da, batez ere, ezaguna.

Eroso sentitzen da mendian, eta sekulako poza sortarazten dio naturarekin harreman hori izateak. Gaur, ordea, iaz Gasherbrum I-erako espedizioan gertatutako tragedia hipzide izango du, Lei-doro aretoan, 19:30etik aurrera.

Gaur Tolosan izango zara, Mendi Tour egitasmoaren barruan, Bajo Cero film laburraren inguruko non-dik norakoak kontatuz.

Bai, *Bajo Cero* filma aurkeztuko dugu. 20 minutuko film laburra da, eta bertan, neguaren gogortasuna azaltzen dugu besteak beste. 2011n izan genuen neguko lehen espedizioa, Karakorum-en, Gasherbrum I-ean. Hortik lan bat sortu genuen, Gasteizen aurkeztu zena. 2012. urtean berriro itzuli, eta *Bajo Cero* filma egin genuen. Zoritxarrez, film honetan ez dago istorio politik, guztiz aurkakoa. Zazpi laguneko taldea ginen, eta lau lagun baino ez ginen bizirik iritsi geure etxeetara.

Zoritxarreko gertaera horiek mendiarekiko ikuspegia aldatu dizute?

Bai, noski baietz. Duela bi urtera arte, hiltzeari beldurra izan diot. Gaur egun, ordea, heriotzak etorri behar badu etorri egiten dela pentsatzen dut. Han muga-muga zaude, hari batetik zintzilik. Eta 7.000 metrotik gora, marra oso estu bat dago heriotzaren eta bizitzaren artean. Mendiarekiko ikuspegia aldatzeaz gain, ordea, mendian nagoenean gauzak hobeto egiten saiatzen naiz orain; gauzak askoz ere gehiagotan pentsatzen ditut.

Hainbat espedizioan ikus-entzunezko lanak burutu dituzu. Nolako da baldintza horietan irudiak hartzea?

Oso-oso gogorra da, benetan. Baldintzak oso gogorrak dira. Edozein gauza grabatzeko, hemen, ordu bete behar baldin bada, han askoz ere luzeagoa da: traste guztiak oso ondo gorde behar dira, kamerekin lo egin behar da hauek paparrean sartuta, eta abar. Ezin da irudikatu zein gogorra den. Bestalde, neguko azken espedizioak ekarri ditudan irudiek erabat harrapatuta naukate, egia esan, eta gainera, guk geuk grabatutako irudi horien bitartez, norberak egindako lana jendeak gustuko duela ikustea, oso aberasgarria da.

Harrera beroa jasotzen dute horrela-ko ikus-entzunezko lanek. Leku iritsezinak erakusten dizkiezulako ote?

Grabaketak egiten duguna erakusteko burutzen ditugu, batez ere, etxekoentzako nahiz laguntzako. Honez gain, ordea, nire ustez egungo gizartean badira galduriko balore batzuk, eta behar bada, menditik-eta, beste eratzetan batekin transmititu daitezke.

Zein balore?

Esaterako, gure irudien bitartez, Euskal Herrian jaio izanagatik zein zoriontsuak garen ikus daitezke; edozein gazteri esango nioke, Afrikara nahiz Asiara joateko, han zein bizimodu gogorra duten jakiteko, eta hemengoa ez dugula estimatzen ikusteko. Nik orain, nire bizitzako segundo bakoitzean dena ematen dut, eta are gehiago, zertan aritzen naizen jakinda; edozein gauza txiki benetan estimatzen dut, eta benetan bizirik sentitzen naiz.

Hainbat errealitate eta pertsona ezagutzeko bidea ere bada, beraz, alpinismoa.

Niretzat unibertsitaterik onena izan da, eta izugarri pozik nago aukeratu dudana bidearekin. Mendian ez dago ez dirurik, ezta osperik ere, nire kasuan behinik behin; eta horren bila ere ez gara



HITZA

joaten. Nik, mendian, bestelako helburuak ere izaten ditut, izan ere, bidaiak egitea gustatzen zait, mundua ez baita hainbeste maite dugun Euskal Herria bakarrik; hemendik kanpo ere gauza asko daude.

**Duela aste batzuk Laila Peak-eko tontorrera igo zarete, eta espedizio hau neguan burutu duten lehenengoak izan zarete. Zerk bultzatzen zaitu horrelako erronkei aurre egite-
ra?**

Nik ez ditut lorpenak baloratzen, taldeko lan hori, baizik. Bizipenei eta pertsoneri garrantzia handiagoa ematen diet nire bizitzako momentu honetan, lorpenei baino. Noski, tontorrera iristerakoan poza sentitzen da.

**Txikitatik izan duzu kiroletarako zale-
tasuna. Mendigoizaletasun horre-
tan, ordea, nolatan hasizinen?**

Gazte-gaztetatik futbolekin aritzen nintzen, eta noizbehinka mendi irteera batzuk egiten nintzen. Halako batean, ez dakit noiz, mendiak harrapatu egin nintzen, eta institutuan piper egiten hasi nintzen aurreneko aldiak eskaladagatik-eta izan ziren. Horrela hasi, eta jarraitu egiten du bategi, gero eta gehiago, batera eta bestera.

Jende ezaguna ere izango zenuen.

Agian nire inguruko jendea mendizaleagoa izan da, beste batzuen ingurukoa baino, eta arrisku kiro-
lak egiten zituzten. Horrela, mendi-
altuetan amaitu nuen. 20 urte-
rekin 7.000 metroko mendietara
igotzen hasten bazara, hori hobez-
tzen saiatzen zara, eta gaur egun
oso eroso sentiten naiz inguru ho-
rietan.

Espedizio batera abiatu aurretik no-

**lako da zure eguneroko prestakun-
tza fisikoa?**

Orain ia lorik ez dut egiten, oso lanpetuta bainago. Igeltseroa naiz, eraikuntzan lan egiten dut, eta mendirako prestatzen aritzen naizenean ere, desordutan egiten

«Mendian ez dago ez dirurik, ezta osperik ere, nire kasuan behinik behin»

«Bizipenei eta pertsoneri garrantzia handiagoa ematen diet, lorpenei baino»

«Ez naiz prestakuntza zehatz bat eta medikua gainean dituen mendizalea»

ditut entrenamenduak. Dena den, beti saiatzen naiz entrenatzerakoan ere, naturaz gozatzen. Uda baldin bada, kayakean itsasora irtetzen naiz, eta bestela eska-

latzera nahiz aizkoran egitera joaten naiz. Ez naiz prestakuntza zehatz bat eta medikua gainean dituen mendizalea; lagun onekin joaten naiz entrenatzen, eta horrek gogoa pizten dit gauzak, ahal den neurrian, ondo egiteko. Nire mendia ez da matematika, ez da 2+2. Egia da, mendiari edo neure fisikoari errendimendu handiagoa aterako niokela entrenamendu zehatzagoak eginez, baina garrantzitsuen ilusioarekin joatea da.

Zein aholku emango zenioke berebizitza alpinismoa bideratu nahian duen gazte bati?

Ilusioari, talde ona izateari eta gauzak egiteko inongo presarik ez izateari emango nioke nik garrantzia. Neronek, presa handia izan du zenbait gauza egiteko, eta eskailerak banan-banan igo beharrean, hiruak igo izan ditut. Hori oso arriskutsua da. Beraz, presarik ez izatea eta mendiaz nahiz lagunez gozatzea gomendatuko nioke edonori, bizitzak buelta asko ematen baitituz; pixkana-pixkana ibili behar da.

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GIDAEZ
RUTEREN
EGITEA
POZIBILDA
LORTZEKO

(Bereko sarria jasoaz)

902 110 436
WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

ATE IREKIAK

Goleirriko campusa

INGENIARITZA - MARTXOAK 16

larunbata, 10:30 ORDIZIA

Uemako kide gisa onartuko dute Tolosa larunbateko batzar nagusian

Larunbatetik aurrera, guztira 69 udalerrik osatuko dute Uema, horietako hemezortzi dira eskualdeetakoak

Mikel Iraola Tolosa

Abenduko plenoan onartu ondoren, Tolosa, Uema udalerririk euskaldunen mankomunitateko kide gisa onartuko dute, datorren larunbatean, martxoaren 16an, elkarteak Orion burutuko duen batzar nagusian.

Batzar horretan, ohiko gaiak jorratuko ditu mankomunitateak: egindako lanen memoria, eta urte berrirako egitasmoak. Azken hilabeteetan landu duten hausnarketa prozesuari ere amaiera emango zaio. Baina eguneko puntu nagusienetakoa bat, bost udalerriren onarpena izango da, tartean, Tolosa. Gai nagusienetakoa kide berriak, Zarautz, Lesaka, Lekeitio eta Munitibar dira.

Atzo Orioko kultur etxean egindako prentsaurrekoan, bost herri hauek hartutako konpromisoagatik, esker ona adierazi nahi izan zuten Maren Belastegi, Uemako lehendakariak: «Guztionez helburua denok elkartuta errazago lortuko dugulakoan, urrats garrantzitsua da Uemarentzat hauenak bezalako udalak gugana biltzea».

Larunbatetik aurrera, 69 izango dira Uema osatuko duten uda-



Uemak eskerrak eman zizkien bost herriek hartutako konpromisoagatik. HITZA

lerriak, horietatik hamabost, Tolosaldekoak: Aduna, Alegia, Altxo, Amezketa, Anoeta, Baliarain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Orexa, hain zuzen. Eta Leitzaldeko Areso eta Leitza herriak ere kide dira.

Erakundeko kide izateko «ate joka» dauden beste herri batzuk ere badirela aipatu zuen Belaustegik, eta urratsez urrats, Uemaren helburua nagusietako bat lortzen ari direla aitortu zuen: «Jurgunea zabaltzen ari gara. Hasieran herri txikiak osatzen zuten Uema, baina agerian geratu da herri handiak ere izan daitezkeela herri euskal-

dunak. Hori oso aberasgarria da guretzat. Txiki zein handi, euskaraz bizitzeak batzen gaitu».

Abenduan eman zion Tolosaldeko osoko bilkurak oniritzia mankomunitatean sartzeko proposamenari. Honela, Tolosaldeko Udalak 17.000 euro bideratuko ditu Uemara, eta bost bozeramale izango ditu: Ibai Iriarte, Lore Agirre, Hasier De los Rios, Miren Urkola eta Inaki Irazabalbeitia.

Aurrera begira

Bestalde, larunbateko hitzorduan, azken hilabeteetan lantzen ari den hausnarketa prozesuari amaiera emango dio Uemak, aurrerantzean norabide berri bati

ekiteko: «Hausnarketa luzea baiena aberasgarria izan da» esan zuen Belastegik.

Batzararen ondoren, Orioko kultur etxean ekitaldi instituzionala egingo dute proiektua «egi bihurtu duten» eragileekin. Bertan, mankomunitateak aurrera begira jorratuko dituen ildo nagusiak aurkeztuko dira, baita datorren hilabeteetan erreferentziaztat izango duten leloa ere.

Aro berriari «ilusio eta indarrez gainezka» ekin diotela azaldu zuen Belaustegik: «Kimur berriak ermetzen ari dira euskararentzat eta gure ardura da kimur horiei hazten laguntzea indartsu lora dezaten».

→ Laburrak

Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute

ANOETA > Aurtengo jaiak iragarriko dituen, teknika libreko kartel lehiaketa antolatu du jai batzordeak. Kartelak karratua izan beharko du (29,7 zm. x 29,7 zm). Lanak aurkezteko epea, apirilaren 22an amaituko da, eta data hori baino lehen udalerean edo liburutegian utzi beharko dira. Bi sari izango dira: herri ikastolako ikasleentzat Kuku-Loren erosteko 40 euroko bonoa; eta gainontzekoentzat 120 euroko saria. Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat antolatuko dute ondoren.

Xake ikastaroa izango da Pazko astean

ANOETA > Lehen Hezkuntzako lehen mailatik aurrerakoentzat xake ikastaroa antolatu dute pazko asterako, apirilaren 2tik 5era. Bi orduetako izango dira aukeran: 11:00-12:00 eta 15:00-16:00. Izen emateko epea martxoaren 22ra bitarte egongo da zabalik udalerean, liburutegian eta Xake txokoa. Ikastaroaren prezioa bost eurokoa izango da.

Espainiako banderaren aurkako herri batzarra

AMEZKETA > Espainiako banderaren aferaren inguruko herri batzarra egingo dute gaur, Amezketan. Hitzordua, 19:00etan izango da kultur etxeko aretoan.

Herririk II. Argazki Rallya antolatu du

AMASA-VILLABONA > Herrira mugimenduak, preso eta iheslarien eskubideen defentsan, II. Argazki Rallya antolatu du. Larunbateko 10:00etan irekiko da izen emateko epea, eta horrekin batera igorriko dituzte argibide guztiak. Presoek osatuko dute epai mahaia, eta euren iritzia eman ondoren, ekainaren 13tik 15era bitartean Aljibearen egingo den erakusketan plazaratuko da irabazlearen izena.

Olaederra kiroldagiko matrikulazioa doan

AMASA-VILLABONA > Azken hilabeteetako beharakadari buelta eman nahian, dohako matrikulazioa izango dute bazkide berriak. Halaber, %24ko beharpena izango dute kuotek. Tarifa berriak ikusgai daude www.villabona.net atarian. Hortaz gain, gimnasioa handitzeko obrak, laster jarriko dira martxan.

Egin HITZAREN HARPIDEDUN
otsailaren 1etik martxoaren 31ra arte, ETA JASO

EKAIN sagardoa
6 botilako kaxa bana

Harpidedun egiten diren guztien artean

Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKARIA

Etxeko lanetarako.

Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesatuak honako bi telefono hauek batera deitu dezake: 943 696882 edo 606 521992.

GALDUTAKOAK

Txakurra.

Pasa den igande goizean, Apparta industrialdean Setter Ingles arrazako eta marroi-txuri koloreko txakurra galdu zen. Ikusi duenak edo zerbait jakin dezakeen edonork, deitu dezala 637 998 926 telefono zenbakira.

Mauka

Gatiburen kontzertua eta Pagoa garagardoa

PREZIOA **10€**

PROGA ARETOKO OMIKIZUN
Egiteko aurka. Pagaratzen.
(Lanetarako bidea)
2016ko Oarizun (GURUKO GEA)
Tel. 919-421-152

www.mauka.eu

berria

Korrika 18 →

Korrika 18rekin batera euskararen jaia iritsiko da eskualdeetara

Korrika iritsi aurretik Korrika Txikiak egingo dituzte Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan

tarekin batera, euskararen aldeko jaia lehertuko da eskualdeetako herrietara. Hainbat ikastetxeek Korrika Txikiak antolatu dituzte, lasterketa nagusira ongi berotuta iristeko. Tartean meriendarentzat ere lekua egongo da.



Korrika 18ren aldeko kontzertua eskaini zuten Adunako Loatzo Musika Eskolako ikasleek, herenegun. HITZA

Asier Imaz

Korrika 18 ostegunean hasiko da Andoainean, eta Tolosaldera 17:00ak inguruan iritsiko da, Adunatik barrena. AEK euskaltegiak antolatzen duen lasterke-

Adunak, kontzertua

Korrika 18ren aldeko ekimena egin zuten Adunak herenegun. Loatzo Musika Eskolakoek kontzertua eskaini zuten bertan. Korrika batzordetik azaldu dutenez, Loatzokoak izan ziren euren bu-

rua eskaini zutenak, Korrikaren alde zerbait egin nahi zutela esanaz. 20 lagun inguru aritu ziren giroa musikarekin goxatzen.

Lehenik eta behin, bost dultzainero plazan aritu ziren herritarrek kultur aretora gonbidatzeko

lanean. Bertan, tronpetek, saxofoiek, trikitilariak, biolinek, gitarrek, flauta trabeserek, eta txistulariek eskaini zuten kontzertua.

Ondoren, Korrika batzordeak, Adunako Udalaren laguntzarekin, merienda banatu zuen, txo-

kolate bero eta guzti. Adunatik azaldu dutenez, kultur aretoa jendez bete zen, eta izan zen kontzertua kanpotik jarraitu zuenik ere. Batzordeko kideek, Loatzokoei eskerrak eman nahi izan dizkie ekimenagatik.

↓ Egitarauak
ARESO
Etzi, martxoak 15

■ **15:45.** Korrika Txikia egingo dute eskolako haurrek herrian barrena. Eguraldi txarra bada hurrengo asterako utziko dute.

ADUNA
Bihar, martxoak 14

■ **15:30.** Adunako Herri Eskolak antolatuta Korrika Txikia egingo dute. Korrikako petoak soinean, herri inguruneari itzulua emango diote ikasleek eta irakasleek. Ondoren, Txulobi elkartean gurasoek prestatutako txokolata dastatuko dute.

ASTEASU
Etzi, martxoak 15

■ **Goizean.** Pello Errota ikastetxeo txikienean goizean Korrika Txikia egingo dute. Gainerako ikasleek Larraul eta Asteasu arteko bidea egingo dute. Musika lagun izango dute Korrika Txiki-

kian parte hartuko duten ikasle, irakasle eta herritarrek.

ALEGIA
Bihar, martxoak 14

■ **21:00.** Zahagiardoa egongo da herriko plazan, Korrika pasa ondoren jaiarekin jarraitzeko.

ALTZO
Bihar, martxoak 14

■ **15:45.** Korrika Txikia eskolatik aterako da, plazan amaitzeko. Ikasleek eta irakasleek gurasoak ere gonbidatu dituzte parte hartzera.

■ **19:00ak inguruan.** Altzoko Udaltetik herritar guztiei Korrika nagusian parte hartzeko deialdia egin diete, Alegia ingurura jaitsiaz.

AMASA-VILLABONA
Bihar, martxoak 14

■ **Arratsaldean.** Loatzo musika eskolako trikitilariak Korrikaren

etorrera alaituko dute. Herriko ikastetxeek aurten ez dute Korrika Txiki egingo, eta bakoitzak bere ekimenak antolatu ditu.

AMEZKETA
Bihar, martxoak 14

■ **18:30.** Amezketako plazan gelditu dira, Alegiatik pasatzen den Korrikara joateko.

Etzi, martxoak 15

■ **20:00.** Kultur etxean *Bidaia intimoak* dokumentala eskainiko dute.

Martxoak 17, igandea

■ **12:00.** Korrikaren aldeko hamaitakoa egingo dute plazan. Bertan, Korrikako materiala, eta Korrika Lagun egiteko aukera egongo da, besteak beste.

ALKIZA
Bihar, martxoak 14

■ **15:30.** Zizurkilgo Korrika Txikiarekin bat egingo dute alkizarrak.

BERASTEGI
Etzi, martxoak 15

■ **17:30.** Korrika Txikia ospatuko dute herrian barrena.

IBARRA
Bihar, martxoak 14

■ **18:30.** Korrikari harrera egiteko hitzordua Ibarra sarreran jartu dute.

IKAZTEGIETA
Bihar, martxoak 14

■ **15:00.** Korrika Txikia egingo dute, eta irteera puntua herriko zubia izango da.

■ **16:00.** Korrika nagusiaren aurretik txokolata dastatuz merienda egingo dute.

LARRAUL
Etzi, martxoak 15

■ **Goizean.** Asteasuko Korrika Txikiarekin bat egingo dute Larraulgo ikastetxeeko haurrek.

TOLOSA
Bihar, martxoak 14

■ **15:00.** Herriko ikastetxeen Korrika Txikia Trianguloatik abiatuko da, eta bi adarretan zatituko da. Batzuk, Samaniego aldean joango dira, eta besteak, Laskorain ikastolarantz.

■ **19:30.** Korrika igaro ondoren, barrikotea egingo dute Trianguloan. Eguraldi txarra eginez gero, Zerkausian. Sagardoa Isastegik jarriko du, eta pintxoak tabernariak. Baso bakoitza euro bat ordaindu beharko da. Giroa alaituz txaranga egongo da.

ZIZURKIL
Bihar, martxoak 14

■ **15:30.** Zizurkil Goiko bidegurutzetik aterako da Korrika Txikia, herriko hiru ikastetxeetako haurrekin, eta Alkizako Herri Eskolako ikasleekin. Zizurkil Beheko Aurrera plazara ino joango dira, bertan merienda egiteko, Korrika nagusiaren zain.


sariduna
korrikaren lekukoa eramatea

Jon Vallejo Ezeiza (Tolosa)



Martxoak 14 • Osteguna
Tolosa

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera ditu



LAGUN ARO GBC
Ucam Murcia
saskibaloi partida


Martxoak 17 • igandea
12:00
Donostiako Ilunben

HITZAK harpidedunentzat
bina sarrera pare ditu

Kmk '13-ren eskutik
Pirritx, Porrotx eta
Marimototxen emankizunetarako

Martxoak 16 • larunbata
12:00 / 17:00
Tolosako Leidorren

zozketa



Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Maialen Mujika • Terapeuta

«Estresa askatuz gorputza orekatzea da helburua»

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Bat Izan zentroak antolatuta, kinesiologiari buruzko hitzaldia izango da gaur, 19:30etik aurrera, Ibarrako kultur etxean. Bat Izan zentroko Maialen Mujikak nabarmendu duenez, «persona gisa hazten eta norbere burua gehiago ezagutzen laguntzen du kinesiologiak».

Zerda kinesiologia?

60ko hamarkadan kiropraktiko batzuk konturatu ziren giharrak mugimendu ezberdinak dituela, hau da, estresatuta gaudenean era batera erantzuten dituela, eta lasai gaudenean, beste era batera. Emozionalki ongi sentiarazten zaituen ideia batekin giharra gogor egoten da, eta zerbait tristea pentsatzen duzun unean giharra ahulago dago. Beraz, gure inguruan gertatzen den orok eragina duela gure gorputzean esan nahi du horrek. Horrela, atal ezberdinak lantzen hasi ziren, heziketaren alorra edota garunarena, esaterako. Eta, baita emozioena ere. Kinesiologian gorputza bere osotasunean hartzen da kontuan, hau da, fisikoki, emozionalki eta energetikoki. Estresa askatuz gorputza oreka batera eramatea da helburua.

Zer lortzen da horrela?

Gorputzak bere potentzial osoa izango luke %100ean, eta hori gure egunerokoan oso garrantzitsua da. Esaterako, min edo ezintasunen bat badugu asko lagundu gaitzake. Edota, ikasketetan edo gure lanean emaitza hobekak izaten ere bai. Bizitzako alderdi guztietan du eragina. Baita eguneroko erabaki txikietan ere. Estresarik gabe gure garunak konexio neurologiko egokioak izango ditu, eta ondorioz gure erabakia ziurragoa izango da. Askea, baldintzatzailerik gabeta.

Nola nabarmenduko zenuke kinesiologiak izan duen eragina zure bizitzan?

Ikasketetan, esaterako, asko nabaritu dut. Emozionalki, zure jarreran aldaketak nabaritzen dira, ideiak eta kontzeptuak aldatu egiten zaizkizu. Batez ere emozionalki asko bete dit, nire burua ezagutzen lagundu dit kontzientzia irekitzen, burujabetasuna irabazten. Eta horrek ziurtasun handia eman dit bizitzan. Gizarteak, erlijioak edota sistemak agindutako ideia asko umetatik ezarriak ditugu, eta hauek ez digute libreki erabakitzen uzten. Aurreiritziz beteak bizi gara. Kinesiologiak, modu batera, ideia



I.T.

horiez askatzen zaitu, eta benetan sentitzen duzunarekin bat eginez bizitzen ikasten duzu.

Nola lortzen da hori?

Kinesiologia ez da soilik arazora joaten. Horrek ez du hainbesteko garrantziarik. Pertsonak helburu bat jartzen du beti. Hori oso garrantzitsua da, horrela zure intentsio guztia bideratuko baituzu helburu horretara eta ez horrenbeste arazora, gorputza orekatuz. Kinesiologiak alor askotako terapia ezberdinak hartu eta batu ditu. Fisikoki gorputzean akupunturako puntu batzuetan masajeak eginez egin daiteke, akupresura bidez, drenaje linfatiko moduko bat egin daiteke puntu batzuetan, edo ariketa fisikoak egin daitezke. Emozionalki, berriz, blokeatzen gaituzten emozioak bila ditzakegu eta hori landu. Azken batean, psikologikoki emozio bat, trauma bat edo blokeo bat daukazunean, gorputzean ere geratzen da markatuta. Zuk gorputzari mugimendu ezberdin bat ematen badiozu, burua ezberdin jokatzen hasten da. Neurologikoki, konexio berriak egitea da helburu nagusia kinesiologian, eta horrela ikasita ditugun prozesuak puskatzea eta gure gogokoak diren beste batzuk ezartzea. Zenbat aldiz gertatu zaigu gauza bat behin eta berriz errepikatzea, nahiz eta jakin ez dela ona gure buruarentzat, eta ezinezkoa egiten zaigu beste ezer egitea.

Nori zuzenduta dagoela esango zenuke?

Adin guztietako jendea. Izan ere, guztiok ditugu lortzera iristen ez garen helburuak. Pertsona bezala hazten eta norbere burua gehiago ezagutzen laguntzen duen terapia da. Nik askotariko arazoak dituzten jendearekin lan egiten dut terapia honekin.

Ibarratik Misio Taldearen eskutik, Misio Astea izango da gaurtik igandera

Lanean ari diren hiru lurraldeetan gauzatzen ari diren proiektuak azalduko dituzte gaur, 20:00etan, lokalean

Iñigo Terradillos Ibarra

Urteko sasoi honetan egin ohi duten moduan, Misio Astea antolatu du beste behin Ibarratik Misio Taldeak. Bultzatzen dituen proiektuen berri emateko hitzaldia izango da, haur misiolarien topaketa egingo dute, eta misio giroko eukaristia.

Gaur izango da lehendabiziko ekitaldia. Ibarrako parrokiko kaleetan elkartuko dira 20:00etan, eta urte hauetan Indian, Ekuadorren eta Hondurasean aurrera eramantzen dituzten eta eramaten ari diren garapenerako proiektuen berri emango dute. Halaber, Ekuadorko Santa Rosatik Ibarrara etorritako bertako elkarteko bi animatzaileekin losalaldia egiteko aukera ere izango dute bertarantz direnek.

Larunbatean jarraituko dute ekintzek. Egun horretan, elizbarrutiko haur misiolarien topaketa egingo dute. Igandean, hilaren 17an, berriz, San Bartolome Parrokiko Elizan, misio giroko eu-



Ibarratik Misio Taldea Ibarrako azoka berezian. HITZA

karistia ospatuko dute, 10:30etik aurrera.

Misio taldeak eskerrak eman dizkie urte hauetan guztietan lagundu duten guztiei. «Euren solidaritaterik gabe ezin dugu justiazko mundu berri bat amestu eta egi bihurtu», adierazi dute. Taldetik bultzatzen ari diren proiektuak Ibarrako Udalari eta ibarbarrei esker posible direla azaldu dute: «Udalak garapenerako proiektuetarako jartzen duen %1 dago, Gabon egunean eta Santa Ageda bezperan Parrokiko Koruak animatzen dituen kale-kaleko kantaldietatik jasotzen dena, Ibarrako azokan eta Merkatu Txikian lortutakoa». Era berean, beste herri eta erakundeeta-

rik ere jasotzen dutela babesa nabarmendu dute: «Orona Kooperatibak diru laguntza luzatu digu Honduraseko Aldea Suyapan daukagun proiektuarekin aurrera egiteko, eta Legorretako Udalan ere eskaera egin digu proiektu berarentzat; Laskorain ikastolatik ere Ekuadorren eraikitzen ari den egoitza aurrera eramateko diru laguntza jaso dugu». Guzti horri, eskuz emandako eskupekoak, haurrak besoetan hartzen dituzten familiak, eta hainbat enpresen parte hartzea batu diote.

Bada, guztien babesa eta laguntza eskertzeaz gain, herritar oro gonbidatu dute Misio Asteko ekintzetan parte hartzera.

oibarraldea@hitza.info

Irudia • Lizartza



PEIO OLANO ASKE UTZI DUTE

Atzo arratsaldean utzi zuten aske Peio Olano lizartzarra, epaileak zehaztutako bermea ordaindu eta gero. Familiako kideak eta adiskideak joan ziren bere bila, eta gauean Lizartzara iristean harre-
ra egin zioten herritarrek. Murtziako (Espainia)

kartzelan zegoen espetxeratu, eta iragan urtarri-
lean hiru urte bete zituen preso. Epaiketaren zain geratuko da orain Olano. 2010 urteko urtarri-
lean atxilotu zuten, eta ETAko komando bateko kide
izatea leporatzen diote. HITZA



Ibarrako udal ordezkariak hainbat herritarren babesa izan zuten agerraldian. I. TERRADILLOS

Ibarrako Udalak etxeko hondakin gutxiago sortu nahi du auzolanaz baliatuta

Herritarrek auzo konposta egiteko bi gune jarriko ditu, eta udaletxera deituta eman beharko da izena

Iñigo Terradillos Ibarra

Ibarrako Udalak, zero zabor politiken aldeko apustua berretsiz, auzo konposta jarriko du mar txan herritarren artean. Oraingoz bi gune jartzeko asmoa du, eta parte hartu nahi dutenek udaletxera deitu beharko dute izena emateko.

Ibarrako Udaletik adierazi dutenez, hiri hondakinen gaia «arazo larri» bilakatu da, «asko sortzen delako eta gehiena nahastuta biltzen delako». Bada, udalaren arabera, «arazoa» konpostzeko lehen irizpidea prebentzioa da, «hondakin onena sortzen ez dena delako». Horregatik, atal organikoari eman nahi diote lehentasuna, «etxeetan sortzen den hondakin nagusia delako eta zaborregietan arazo gehien sortarazten duena». Hondakin organi-

koa konpostatutakoan «ongarri ezin hobea» bihurtzen dela dio udalak, baina, herritar guztiek ez dutela konpostatzeko aukera.

Hori dela eta, etxean sortzen diren hondakin organikoak modu bateratuan kudeatu nahi ditu Ibarrako Udalak, horretarako eremu publiko bat egokituta. Era berean, beharrezkoa den material guztia jarri eta modu egokian egiten denaren jarraipena egingo du, «etxeko hondakin gutxiago sortzea auzolanaz baliatuta» helburu hartuta. Ekimen honetan parte hartzen duten herritarrek %40-50 inguru gutxituko dutela zaborra aurreikusitako udalak, «hondakin organikoak ez baitute zaborrontzietara bota beharrik izango».

Oraingoz auzo konpostatzeko bi gune jarriko ditu udalak, baina ekimenean parte hartzeko asmoa duen herritar kopuruaren arabera, gehiago jartzeko asmoa du. Martxoaren 27a baino lehen eman beharko da izena Ibarrako udaletxera deituta, 943 67 11 38 zenbakira, 09:00etatik 14:00etara. Ekimenean parte hartzeko Ibarrran erroldatuta egotea beharrez-

koa izango da, etxebizitzaren jabearen izenean eman beharko da izena, etxe bakoitzeko pertsona bat, eta antolatuko den ikastaroen parte hartu beharko da. Martxoaren 20an izango da euskaraz, eta 21ean gazteleraz. Biak kultur etxean izango dira, 19:30ean.

Ingurumena eta ekonomia

Ibarrako Udalak dioenez, auzo konpostatzea «zero zabor ereduarekin bete-betean bat egiten duen praktika da». «Hondakin organikoak ez da ez biltzen, ez garraiatzen, eta tratatu beharrik ere ez dago. Ingurumenean eta osasunean ondorio kaltegarriak ekiditeaz gain, horrelako praktikekin dirutza aurrezten da». Udalak adierazitakoaren arabera, «zaborregietara botatzen den tona bakoitzeko 140 euro ordaintzen ditu, eta, aldiz, sailkatutako plastiko, ontzi eta kartoigatik ez du ordaintzen, baizik eta diru kopuru bat kobratzen du». «Horregatik, oso garrantzitsua da zaborra gutxitzea, horrelako proiektu komunitario edo bakarkako bidez, udalak diru asko aurreztu bailezake».

Gutuna

Alegia, Anoeta, Amasa-Villabona, Irura eta Zizurkil; zuekin, alde ederra!

Pasa den astean, Tolosaldearentzat eta Gipuzkoarentzat oro har pauso handi bat eman da, gure kide diren Alegia, Anoeta, Irura, Amasa-Villabona eta Zizurkilek gaikako bilketa eraginkor bat ahalbidetuko duen sistema bati ekingo diotela adierazi baitute eta harro gaude.

Tolosaldeko Mankomunitatearen batera, lehenagotik ere eskualdeko hainbat herrik, egun dugun eredu atzean utzi eta herritarrek harro egoteko moduko bilketa sistema berriak proposatu dituzte. Hauen bidez, birziklapen mailak handitu eta gure seme-alabei etorkizun garbiago bat ahalbidetuko diegu.

Aspaldidanik dugu zero zabor eskualde bihurtzeko asmoa, eta pozgarria da ikustea pixkanapixkana geroz eta herri gehiago garelako horren aldeko benetako apustua egiten ari garenak. Egun herritarrok hondakin dugun harremana zeharo aldatzeko aukera dugu, eredu eraginkorragoak posible direla ikusi-

ten ari baikara, ingurumena, ekonomia eta hurrengo belaunaldiak oinarri hartuta.

Azken berri honekin, Anoeta, Irura, Amasa-Villabona, Zizurkil eta Alegiaren kasuan, euren birziklatze tasa guztiz iraultzeko apustua egin dute, horrela, herritarren ongizatea jarriz ezerean aurretik. Hilabete gutxiaren barruan, herri horietan eta eskualdean ere nabaria izango da al daketa eta horren jabe eginda, atzetik beste herri gehiago gehitzeko aukerak ere pozten gaitu.

Eskualdean dugun zabor kudeaketa errotik aldatzeko apustuan bost herrien iniziatiba salto kualitatibo handia izango da ez bairik gabe. Eta jarraian ere gehiago izango garenaren itxaropena dugu.

Ondo egingo genuela hitz eman genuen, eta hala da; Tolosaldean bidea zein den argi dugu, eta ondo ari gara. Eskualdeko kide guztiok, herritarrekin batera, alde ederra markatuko dugu!

■ **Ibarra, Aduna, Berrobi, Hernialde, Berastegi, Amezketza, Asteasu, Gaztelu, Ikaztegieta, Oresa, Lizartza, Altzo, Orendain eta Tolosako Udalak.**

Irudia Tolosa



OMENALDIA ERIZAINEI

Berriki erretiroa hartu duten erizain gipuzkoarrek beren lanbide-adiskideen omenaldia jaso zuten iragan asteburuan. Horien artean zegoen Begoña Bravo, Tolosako osasun zentroan urte askoan lan egindakoa. «Oso pozik» egon dela Tolosan eta tolosarrekin lanean adierazi du, eta «oroitzapen ederrekin» geratzen dela. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



8°
4°

| | |
|-------------|-------|
| GOIZA | EURIA |
| ARRATSALDEA | EURIA |
| BEROENA | 11° |
| HOTZENA | 4° |

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

NATUR HOUSE

Elikaduran eta dietetikan adituak

**OPARI
KUPOIA**

EINSTEINEK HARTUKO ZUKEEN

+ MEMPER bial bat egunean
+ EXAMIVIT sobre bi egunean

Dena **17,20*** €

* Beheko kupoia aurkeztu behar da

- Ohorezko Matrikula
- 10 bat lor ezazu
- Lider izatea



ZURE OROIMENA ELIKATU EZAZU

Oinarrizko aminoazidoak, taurina, C bitamina, B motako bitaminak, tila eta melisa oinari dituen osagarria. Hurbilen duzun Naturhouse dendara jo, eta zure MEMPER kaxa lor ezazu; hala, zure familiakoen eta zure oroimena indar dezakezu.



* Kupoi hau aurkeztuz gero, MEMPER kaxa bat erosi eta EXAMIVIT kaxa bat emango dizugu, doan. (Nafarroa etorbidea, 1 Tel. 943 650 795 · TOLOSA)

NATUR HOUSE
Elikaduran eta dietetikan adituak



Jamari galtzazu Facebook orrialdean
www.facebook.com/Espana.NaturHouse

www.naturhouse.com

* Kupoia 2013ko apirilaren 30ra arte erabili daiteke **HTZT13/3**